


ARNasa GARA

Hedabideetarako dossier informatiboa



ARNASA GARA AURKEZPENA

Joshua Fishman soziolinguistak *Reversing Language Shift* (1991) liburuan hizkuntza baten biziraupenerako eta biziberritzerako breathing space edota arnagune bat zein garrantzitsua den nabarmendu zuenetik, hizkuntzen biziberritze-prozesuetan iparrorratz bihurtu da arnaguneak zaintzea. Euskal Herrian ere lan handia egin da ildo horretan. Ikerketa eta programa soziolinguistiko ugari egin dira azken 20 urteetan herri hauen egoera soziala ezagutzeko eta zaintzeko asmoz. UEMA eta neurri batean Euskalgintzaren Kontseilua ere, besteak beste, eragile garrantzitsuak izan dira arnaguneen ezagutzan sakontzeko orduan, eta egindako lanek arnaguneen egoeren bilakaeraren berri eman digute. Horrez gain, Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak 86 udal biltzen ditu gaur egun, guztien artean 253.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatuz. Kontuan hartu behar dira, halaber, UEMAko kide ez diren gainontzeko arnaguneak, guztien artean osatzen baitute Euskal Herriko arnaguneen mapa.

Hedabideetan, euskalgintzan eta hizkuntza-politikako arduradunengan mezua errotu baldin bada ere, arnaguneen kontzeptua eta arnaguneen garrantzia arrotz samarra da herritar gehienentzat oraindik. Hizkuntza biziberritzerako funtsezkoak dira arnaguneak, bertan modu naturalean bizi ahal delako, transmisioa ziurtatuta dagoelako eta hizkuntzaren hedapenean laguntzen dutelako.

Horregatik, 2019an zehar ARNASA GARA kanpaina garatu zuen Hiruko Itunak UEMAekin batera. EITB-k ekoiztako 'Kartzela' serie digitala eta herriz herri egindako ekitaldiak izan ziren kanpainaren muina. Denetara 21 herrietan egin ziren aurkezpen ekitaldiak eta 1.000 lagun baino gehiago batu ziren, kezkak, gogoetak eta erronkak konpartituz.

Aurten Arnasa Gara bigarren kanpaina abiatuko da, iazko kanpainatik ateratako ondorioetan

sakontzeko helburuarekin. 'ARNASA GARA - egunerokoan zer?' kanpainak arnaguneei lotutako zortzi ideia zehatz landuko ditu astean behin sareratuko den esketx baten bidez, iazko kanpainen ateratako ondorioak oinarri dituztenak. Helburua arnaguneetako herritarrek euren arazo eta erronketatik abiatuta ahaldunderako urratsa ematea da eta arnaguneek euskararen biziberritzean duten garrantzia azpimarratzea.

ARNASGUNEEN EZAUGARRIAK

Arnaguneak eta udalherri euskaldunak zein diren adierazteko ez dago marra zurrun bat; oro har, euskararen ezagutza %80 ingurukoa dutenak sartzen dira multzo horretan. Honako ezaugarriak hauek dituzte arnaguneek:

Lehen hizkuntza

Bizilagunen lehen hizkuntza euskara izan ohi da, eta erabat naturala da euskaraz bizitzea eremu guztietan. Oso faktore garrantzitsua da hori, hizkuntzak iraungo badu. Horrez gain, euskalkidunak direla nabarmendu behar da.

Transmisioa

Arnaguneetan, belaunaldiz belaunaldi modu naturalean transmititu da hizkuntza. Bizi-bizirik dago euskara arnaguneetan eta egunero berritzen ari da. Garai eta ohitura berrietara egokitzen da euskara arnaguneetan, bertako bizilagunek egoera guztietarako erabiltzen dutelako. Azken batean, arnaguneetan euskaraz egitea da arau soziala. Goitik behera nahiz modu horizontalean gertatzen den transmisioa da, herriko arlo guztietara zein herritar bakoitzaren esparru pribatura iristen dena.

Hauskortasuna

Lurgune euskaldunetan euskararen indize altuenak dituzten herriak, arnaguneak alegia, biztanle gutxien dituztenak dira, oro har. Herri txiki horiek, hizkuntza-errealitate

ahulagoa dutenez, aldaketen aurrean sentikorragoak dira eta hauskortasun-maila altuagoa dute. Azken hamarkadetan izandako aldaketa sozioekonomikoez eragin zuzena izan dute udalerrri euskaldunetan, baina arnaseguneetan bereziki. Herrian gertatzen diren aldaketek eragina dute hiztunengan eta hizkuntzaren ikuspegi orokorrean.

IAZKO ONDORIOETAN SAKONTZEN

Iazko kanpainan Arnaseguneetako herritarrekin egindako saioetan jasotako ekarpenetatik, aurtun sakonago landuko diren ondorio hauek nabarmendu ziren:

Arnaseguneetan herritarrak **euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz**, baina euskararen gainbehera sumatzen dute.

Lagun-eremuan gehiengoak euskaraz egiten duen arren, erdaldunen bat dagoenean **gaztelerara salto** egiten dutela aipatzen da. Batez ere, gazteen kasuan.

Geroz eta ohitura gehiago dago hizkuntza batetik bestera saltoka egiteko eta **hizketaldi elebidunak** ohikoak izaten dira.

Haur eta gaztetxoek erabileran kezka dago. Pertzepzio orokorra da haurrek **geroz eta gehiago egiten dutela gazteleraz**.

Herritik ateratzean **euskarari** kontzienteki **eusten dioten gehienak gazteak** dira.

Aurreiritzi batzuk badaude "euskalduna" izan ahal den horien inguruan. Atzerritarrekin lehenengo hitza euskaraz egiterako orduan, aurreiritziak daude eta ariketa kontziente bezala hartzen dutenek soilik egiten dute lehenengo hitza euskaraz.

Euskarak berezko duen hizkera aniztasunaren inguruan **konplexuak** daude, euskararekiko eta norberaren euskalkiekiko.

Norberaren ingurua **euskalduntzeko gaitasunak harro sentitzea** eragiten du orokorrean, batez ere, herritik kanpo.

ARNASGUNEEN GARRANTZIA EUSKARAREN ERABERRITZEAN

Eredua

Arnaseguneetako herritarrak eredu dira euskararen normalkuntzan. Erakutsi dute posible dela euskaraz bizi den herria, eta posible dela euskaraz egitea bizitzako esparru guztietan: lagunartea, lana, erosketak... Gaur egun, gainera, arnaseguneetako erakunde asko ere eredu dira, eta erakutsi dute euskara politikarako eta administrazioarako hizkuntza ere badela.

Biziberritzea

Euskara arau soziala denez, herritarrak herriko sektore guztietan aritzen dira euskaraz, ahozko komunikazioan bereziki; hizkera informalak eta naturalak hitz eta molde berriak ekartzen dizkio euskarari, hizkuntza batek ezinbestekoa duen berrikuntza ekarriz, egunero biziberrituz.

Hedapena

Arnaseguneek euren ereduarekin, euskara XXI. mendeko hizkuntza dela-eta, bizitza euskaraz egin daitekeela gogorarazten dute egunero. Bestetik, bertako herritarrak gainontzeko euskaldunekin hizketan daudenean euskaraz aritzeko joera gailentzen da, euskara-ohiturak hedatuz.

AURTENGO KANPAINA: 'EGUNEROKOAN ZER?'

Kanpainaren helburua fikzioaren bidez egunerokotasunean gertatzen diren egoerak islatzea izan da. Esaten den bezala, errealitateak fikzioa gailentzen duelako.

Kanpainak bi elementu nagusi ditu: batetik, fikzioaren lanketaren bidez, eguneroko egoerak islatzen dituzten bideo esketxak eta bestetik, esperientzia errealean bidez, arnasmuneetako pertsona erreferenteei egingo zaizkien elkarrizketak.

Hau sare sozialen bidezko sentsibilizazio eta jarraipen kanpaina batekin osatuko da.

Xede-taldeak eta helburuak

Arnasmuneetako herritarrak: Hauen ahalduntzea bilatuko da, arnasmuneetako biztanle direnen kontzientzia garatuz, euren egunerokotasunean euskararen erabileraren garrantzia azpimarratuz.

Arnasmuneetatik kanpo bizi direnak: Arnasmuneen errealitatearen ezagutza eta herri hauek euskararen biziraupenean duten garrantzia azpimarratzea eta errekonozimenduan jartzea.

Marka

Kontzeptua

Arnasa bizitzeko ekintza da, ezinbestekoa. Bihotzarekin eta naturarekin lotzen gaituena. Mugimendua eta lasaitasuna da. Mezu sinplea bezain indartsua da. Arnasmune diren herri euskaldunak eta bertako herritarrak Euskal Herriaren arnasmune direla nabarmendu nahi da ideia horrekin, euskara bizirik mantentzearen berme nagusietako bat. Dinamikoa da. Uneoro arnasten dugu. Arnasten dugun aireak ere badu halako izaera dinamiko bat, freskoa, lasaitasuna ematen duena.

Mezua lehen pertsonan eta kolektiboan: Arnasmuneetako herritarren ahalduntzea sustatzen du. "Arnasa gara". Norberak bere buruari balio bat ematean oinarritzen da mezua. Mezua kolektiboan osatzeak identitate-sentimendu bat indartzen du.

Jabetze-ariketa bat egitea da helburua, herritarrei direnaz eta izango direnaz jabetu daitezen tresnak ematea.

Estiloa

Arnasa Gara markaren berezko irudia tximeleta da, aipatutako dinamikotasun, freskotasun eta eraldaketaren adierazle. Oinarri horretatik abiatuta, aurtengo "egunerokoan zer?" kanpaina bereziki bizia da. Kanpainaren tipografia sendoa, kolore bizietan eta emandako marrazki estiloan islatu dena.

Aurtengoan eguneroko egoerak jasotzen dira, ikusleak bere burua identifikatuta ikusteko helburuarekin. Identifikazio kolektibo hori sortzeak mezuak gizartean txertatzen lagunduko du. Ohikotasun eta egunerokotasuna umoretik lantzen da.

Kronograma

1. fasea

Arnasmuneen garrantziaren inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa du helburu. Arnasmuneetako eragileekin harremana landuko da, kanpainaren aurkezpen orokorra egingo da, webgunean kanpainaren nondik norakoak bilduko dira eta, sare sozialetan, kanpainari buruzko mezuak zabalduko dira. Esketxan aurkezpenarekin batera amaituko da lehenengo fase hau, martxoaren 18an.

2. fasea

Martxoaren 22an esketxan zabalkundeari eta bigarren faseari ekingo zaio. Astero esketx bat zabalduko da eta esketxaren mezua astean zehar landuko da, sare sozialetako dinamizazio eta erreferenteei egingo zaizkien elkarrizketen bidez. Bigarren fase hau astero *Instagramen* egingo den zozketa batekin indartuko da.

Esketxak

'Euskara da gure postalik ederrena': Gure herriak, gure bazterrak eta gure produktuak nabarmentzen ditugu bisitariak erakartzeko, bertako elikagaiekin eta kulturarekin batera. Askotan, ordea, bertako hizkuntza alde batera uzten dugu zerbitzu sektorean, bisitariari arreta erdaretatik eskainita. Ez du zentzurik, bisitari asko berariaz etortzen baitira udalerrri euskaldunetara, eta euskara ikustea eta entzutea gustukoa baitute.

Fitxa teknikoa

- Ideia nagusia: Bertako produktuen antzera, bertako hizkuntza ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia da.
- Aktoreak: Ainhoa Etxebarria, Erika Olaizola, Juanen Saralegi.
- Iraupena: 01:56'

'Euskararekin ezin galdu': Udalerririk euskaldunenetan, guraso askoren ohiko kezka izaten da haurrak erdaraz nola moldatuko ote diren. Horren beldurrez askok gaztelerara ere jotzen du, haurra hizkuntza horretan ere trebatu dadin. Beldur horrek, ordea, ez du funtsik, hizkuntza hegemonikoaren erauntsia etenik gabea baita hedabideetan, sare sozialetan eta aisialdiko eskaintzan.

Fitxa teknikoa

- Ideia nagusia: Askotan, gurasoen beldurrek mugatzen dituzte haurrak. Beldurra galdu behar da, ez euskara.
- Aktoreak: Iban Garro, Juanen Saralegi.
- Iraupena: 01:53'

'Hitanoarekin, busti gehiago': Hika aritzeak hizkuntzaren bizitasuna erakusten du. Baita hurbiltasuna, laguntasuna eta konplizitatea ere. Hitanoa, gainera, simetrikoa da, eta berdinen artean hitz egiten da. Euskararen ezaugarri ederrenetakoa da. Hainbat lekutan, ordea, behera egin du hika jarduteko ohiturak, batez ere gazteen artean. Horren inguruko hausnarketa dakar bideo honek, transmisioa

berreskuratzeko eta konplizitatea areagotzeko modua erakustearekin batera.

Fitxa teknikoa

- Ideia nagusia: Garai batean hika aritzen ginen. Orain zergatik ez? Ez dadila haria eten!
- Aktoreak: Ainhoa Etxebarria, Erika Olaizola, Iratxe Urkiaga.
- Iraupena: 02:23'

'Ongi etorri euskararen herrira!': Udalerrri euskaldunak garen heinean, gure esku dago etorri berriei hizkuntza ere ematea, harrera egitearekin batera. Gure artean errotuko diren ehunka lagunei euskara ematea modu ederra da beso zabalik hartzen ditugula erakusteko. Eskolak eta euskaltegiak zabaltzea, ordea, ez da nahikoa izango herritarrek gero erdaraz egiten badiegu. Euskara zubi ederra da elkarrekin gurutzatzeko, eta gure hizkuntza eskaintzea da eskua luzatzeko eta gure artera gonbidatzeko modurik egokiena, lehen hitzetik hasita.

Fitxa teknikoa

- Ideia nagusia: Bertakoa maitatzen erakustea da harrerarik onena, eta hizkuntza zubi ederra da horretarako.
- Aktoreak: Sambou Diaby, Iban Garro, Gotzone Rekondo, Juanen Saralegi.
- Iraupena: 01:52'

'Nor da Tomas Hidalgo?': Hurbiltasunari, konfiantzari eta konplizitateari bidea zabal diezaioke euskaraz egiteak. Hala ere, udalerrri euskaldunetatik ateratzean erdaraz hasten gara gehiegitan, solaskidea euskalduna izan daitekeela ahaztuta. Euskara, ordea, edonora heltzeko giltza izan daiteke. Beraz, zertarako aldatu erdaretara kalean, tabernan edo harremanei ekiterakoan ere euskaraz gusturago moldatuko bagara.

Fitxa teknikoa

- Ideia nagusia: Ez ahaztu: euskara da giltza. Euskararekin, edonora!

- Aktoreak: Graxi Arregi, Ainhoa Etxebarria, Mikel Irazusta.
- Iraupena: 01:35'

'Mediku bakoitzak bere orrika': Euskararen aberastasuna erakusten dute euskalkiek. Baita eremu zehatz batzuetan soilik errotuta dagoen lexikoak ere. Horiek hizpidera ekartzen ditugun bakoitzean modu naturalean biziberritzen dugu euskara, eta ingurukoak ere aberasten ditugu, hitz eta esamolde berriekin. Orrikak, kurrikoak, kurrikak edo porrikak arrotzak zaizkigu beharbada, baina tenazak edo alikateak baino jatorragoak dira. Aspaldi ikasi genuen abesten: guztiok gara euskaldun, nahiz eta hitz desberdinez bat bera dugu euskara.

Fitxa teknikoa

- Idea nagusia: Euskalkiek bizitza ematen diote hizkuntzari, eta euskalki bakoitza erdarari aurre egiteko txertoa da.
- Aktoreak: Sambou Diaby, Ainhoa Etxebarria, Mikel Irazusta, Erika Olaizola, Juanen Saralegi.
- Iraupena: 02:23'

'Euskararen tximeleta efektua': Euskarari eusten diogunean, ingurukoak ere euskaraz aritzeko giroa sortzen dugu. Zabaldu egiten dugu euskaldunak euskaraz aritzeko modua, hitz bakar bat nahikoa duen kodearekin. Gainera, hurbiltasunetik, adiskidetasunetik eta konplizitatetik aritzen gara askotan, eta tximeletak oharkabeen hedatzen dira, euskarari bizia emanez. Euskarari eusteak duen garrantzia erakusten du bideo honek, solasaldi informalean ere euskara naturaltasunez biziberritzeko.

Fitxa teknikoa

- Idea nagusia: Euskarari eusten diogunean, ingurukoak ere euskaraz aritzeko giroa sortzen dugu, euskarari bizia emanez.
- Aktoreak: Graxi Arregi, Sambou Diaby, Mikel Irazusta, Erika Olaizola.
- Iraupena: 01:19'

'Lehen hitzak dakar bigarrena': Euskaldunen artean modu naturalean euskaraz aritu arren, askotan, lagunartera erdaldun bakar bat heltzea nahikoa da euskaldunon hizkuntza ohiturak aldatzeko. Horrela, erdalduna euskarara erakarri beharrean, euskaldunak hasten dira erdaraz, euskara bigarren mailako hizkuntza bihurtuz eta euskara zubia dela ahaztuz. Erdaldun bakar batek euskaldunak erdarara nola mugitu ohi dituen erakusten duen ohiko egoera bizitzen du bideo honek.

Fitxa teknikoa

- Idea nagusia: Erdalduna euskarara erakarri beharrean euskaldunak erdaraz hasiz gero, euskara bigarren mailako hizkuntza bihurtzen da.
- Aktoreak: Graxi Arregi, Ainhoa Etxebarria, Erika Olaizola, Iratxe Urkiaga.
- Iraupena: 01:50'

Esketxen kronograma

| Data | Esketxa |
|-------------|-------------------------------------|
| 03/22 | 'Euskara da gure postalik ederrena' |
| 03/29 | 'Hitanoarekin, busti gehiago' |
| 04/05 | 'Ongi etorri euskararen herrira!' |
| 04/12 | 'Nor da Tomas Hidalgo?' |
| 04/19 | 'Euskararekin ezin galdu' |
| 04/26 | 'Mediku bakoitzak bere orrika' |
| 05/03 | 'Euskararen tximeleta efektua' |
| 05/10 | 'Lehen hitzak dakar bigarrena' |

Elkarrizketen datak

Esketxetako mezuetan sakontzeko eta hausnarketa sustatzeko, astero *Instagram LIVE* elkarrizketa bat egingo da @berriaegunkaria *Instagram*eko profilean. Ondoren, elkarrizketak @ArnasaGara *Instagram*eko profilean ere ikusgai egongo dira.

| Data | Elkarrizketatua |
|-------|--------------------|
| 03/24 | Antton Telleria |
| 03/30 | Aitziber Garmendia |
| 04/07 | Sambou Diaby |
| 04/14 | Xabi Xsakara |
| 04/21 | Erika Olaizola |
| 04/28 | Ander Lipus |
| 05/05 | Iratxe Urkiaga |
| 05/12 | Ainhoa Etxebarria |

Instagramen zozketa

Arnasa Gara kanpainan parte hartzen duten jarraitzaileek Argia, Elhuyar eta Gaztezulon urteko harpidetza edo euskarazko produktuak erosteko Elkarren bono bat irabazteko aukera izango dute.

Asteko esketxa zabaltzeko helburuarekin astero zozketa bat egingo da *Instagram* bidez.

Hedabideen ekarpena kanpainaren zabalkunde

Gizartearen parte-hartze aktiboa eskatuko du Arnasa Gara kanpainak. Kanpainak esketxekin eta elkarrizketekin sortuko duen edukien agendaz gain, mezuek jarraipena izan behar dute herritarren artean, norbanako bakoitza jabetu dadin euskarari eta komunitateari zernolako ekarpena egiten dion. Tokiko hedabideei zeregin horretan lagundu dezaten eskatuko zaie, funtsezkoak baitira mezua gizartean txertatze orduan.

Arnasguneen gaia lantzeko eta Arnasa Gara kanpainari jarraipena emateko, proposamen zerrenda zehazten da jarraian:

Arnasguneak zer diren azaltzeko **erreportajea**.

Arnasguneek euskararen ongizatean duten eragina azaltzen duen **artikulua**.

Elkarrizketen egutegia baliatuta, elkarrizketatua aurkezten eta asteko mezua azaltzen duen **albistea**.

Arnasguneen ingurukoei euskara “kutsatzeko” ahalmen handia dutela jakinda, herriotan bizitzeari esker euskara ikasi duen **jendea elkarrizketatu** eta erreportajea osatu. Eta alderantziz, herritik kanpora euskarari eusten diotenak (ahobiziak edo eusleak) elkarrizketatu.

INFORMAZIO BALIAGARRIA

Sustatzaileak eta koordinatzaileak

Kanpaina nagusiaren sustatzaileak Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta UEMA dira. Kanpainaren testuinguruan ekoiztu dituzte Hiru Damatxok esketxak. Iametzak kanpainaren sormenaz eta komunikazio estrategiaz arduratzen ari da.

Harremanetarako

Xalba Ramirez: xramirez@iametza.eus
Sandra Perez: sperez@iametza.eus

Webgunea

www.arnasagara.eus

Sare sozialak

Instagram: @ArnasaGara
Facebook: Arnasa Gara
Twitter: @ArnasaGara
Mastodon: @ArnasaGara